

## Kaukasoko lezioak

**P**ena handia eman dit Kaukasoko gerrak. Abkhaziar eta georgiarren kasuan bereziki, oso tamalgarria da: elkarren etsai bezain euskaldunen ahaide sentitzen dira biak, gurekiko estima sinestezina da. Han euskal kaukasiartasuna ez da teoria, zalantzarik gabeko egitatea baino.

Errusiak ez zuen XIX. mendera arte Kaukaso konkistatu –Georgia izan zuen orduan herri leialena–. 1859an Ipar-ekialdeko txetxeniarrak eta dagestandarrak garaitu ostean, Ipar-mendebaldeko zirkasiarren familia zabalaren –abkhaziarrak barne– aurka gupidagabe jo zuen: 1864an Zirkasia hustu zuten, biztanleen %95 hil edo kanporatuta. Oraindik asko dira Itsas Beltzeko arrainik jaten ez dutenak, otomandar inperiora bidean hondoratutako ontziak gogoan. “Ahaztutako genozidioa” deitzen diote.

Abkhaziako Gobernuak Errusiarekiko esker ona badu ere, diasporako abkhaziarrak –Abkhazian baino askoz gehiago bizi dira Turkian– haserre daude 2014ko Neguko Olinpiar Jokoak Sotxi hirian egingo direla eta, Ubykhia zaharrek hiriburuan. Ubykh guztiak kanporatu zituzten eta 1992an hil zen mende bat lehenago 50 mila hitzun zituen hizkuntza. Abkhaziak Israelen antzeko plana dauka azken urteotan: Turkiako abkhazia-



INIGO AZKONA

rrak etxeratzea. Baina Sergei Bagapsh presidenteari galdetu niolarik barkamenik eskatu behar ote zuen Errusiak 1864koagatik, ezetz esan zidan: “Kontu zaharrak dira horiek”.

Nork du arrazoi hainbeste sufritu duten nazioen artean? 1992an abkhaziarrak ez ziren %20 beren lurraldean, eta georgiarrak ia %50 ziren. Georgiar guztiak kanporatu zituzten gerran, garbiketa etnikoa ankerra izan zen. Baina orduan esaten dizute 130 urte lehenago abkhaziarrak sufritu zutela genozidioa, eta gero Stalinekin eta Beriakin georgiarrez bete zutela Abkhazia, bertako biztanleak gutxiengo absolutua izan arte. Beste horrenbeste diote georgiarrek Hego Osetiaz: osetiarrak Iparraldekoak direla, eta Hegoaldera etorri eta georgiarrak kanporatuz bihurtu direla gehiengo. Nori dago kio beraz, autodeterminazio eskubidea? Lurraldeko biztanle guztiei? Gutxiengoa izan arren “jatorrizko” nazioko kideei? Diasporakoek ere badute hitzik?

Errusiak osetiarren eta abkhaziarren eskubideak aldarrikatzen ditu, Kosovoko albaniarrei ukatzeaz bat. Oligarken Errusiaren inperialismoa gringoena baino hobea da, nonbait, bere aldera lerratu baitira Venezuela, Nikaragua eta sasiezkerkiar mordo bat. Inork ez du galdetu, horratik: eta Txetxenia? ■



Errusiaren inperialismoa  
gringoena baino hobea da,  
nonbait, bere aldera lerratu  
baitira Venezuela, Nikaragua...  
Inork ez du galdetu, horratik:  
eta Txetxenia?



## TXANDAN

Edu Zelaieta

### Bartzak



Besteren bartzak erraz ikusten ditugu. Zeinen erraza den irakasleak kritikatzeko, fakultateko kafetegian edo ikasgelan bertan, *irakasle gebienek* euskara maila kaskarra dutelako nahiz *askotan* eskolak aspergarri mortalak ohi direlako, norbera ikasle delarik ikasle artean.

Zeinen erraza den ikasleak kritikatzeko, fakultateko kafetegian –arestiko ikasle multzoaren ondoan, segur aski– edo bulegoan, *klasetik atera eta* erdaraz aritzen direlako nahiz *ikasleek* eskoletan parte hartzen ez dutelako, norbera irakasle delarik irakasle artean.

Zeinen erraza den, azken batean, nahi ez den errealitate horren erantzukizuna auzokoari egozte. Esae-geure zorriak sumatu ere egiten ez ditugunean.

Zeinen zaila den, ordea, geure kritikak autokritikatik abiaraztea, aditz-pertsonak behar bezainbeste jokatuta: esate baterako, zer egiten dut nik, duzu-zuk, dugu-guk edota dute-haiek eskolen pisua *irakasleok* bakarrik ez eramateko eta, hortaz, zer egiten dut nik, duzu-zuk, dugu-guk edota dute-haiek *ikasleok* benetan inplikatzeko? ■